

Egungo Euskararen Hiztegia

—Y—

[bertsioa: 2024-01-09]

y ik i 2.

ya ik ja¹.

yankee ik **yanki**.

yanki (orobat **yankee** g.er. eta **yanqui** g.er.) izond/iz estatubatuarra.

Ni ez nintzela soldadu **yanki** bat Bigarren Mundu Gerra bitartean mendean hartutako herri batean umei txokolatnak banatzen. **Jon Muñoz**
Talibanen ustez «eragile **yankiak**» dira boluntarioak. **Berria - Mundua**
Inbidiaz begiratu izan dut, gurasoekiko miresmena film **yankietan** soilik gertatzen zela uste duenaren begiekin. **Eider Rodriguez**
Batek burua bisera **yankiaz** du estalita eta besteak fular tradizionalaz. **Jon Arretxe**
Yankiek, dena den, iragarri dute dagoeneko ez dituztela Afganistango bonbardaketak etengo barau-hilabeteen. **Jon Arretxe**
Glenn Pattersonen aldiz **yankia** ematen du, betaurrekoak eta baseball kapelu horrekin aldean. **Edorta Jimenez**
Yankiek, urdai-saltzaile batzuk baizik ez baitziren guztiak, lasterka alde egingo zuten. **Josu Zabaleta**
Errua **yankiena** da; izan ere, wahabien eta baath alderdiko jarraitzaileen aliatuak dira», esan zuen Mohamed Ali mulak. **Berria - Mundua**
Kontrola zuten **yankiek** kontrolik gabe laga zituzten matxinoak. **Anton Garikano**

yanqui ik **yanki**.

yaourt ik **jogurt**.

yarda iz luzera neurtzeko ingeles unitatea, 0,91 metroren baliokidea.

Esprinterrak, epe laburreko energia-erreserba erabiliz, orduko 23 miliako abiaduran egin ditzake ehun **yarda**. **Irene Aldasoro**
Errepidetik **yarda** batzuetara harkaitzezko muino altu, aldapatsu, beltz bat zegoen. **Koro Navarro**
Azken ahalegin etsian, Frodok, eskuen gainean arrastaka, hogeit bat **yarda** aurreratu zituen. **Agustin Otsa**
Gai sentitzen haiz bonba mila eta bostehun **yarda** urrun jaurtitzeko? **Edorta Jimenez**
Igerian joan zitekeen haiengana, hanka-puntetan bezala, euren gaitasun **yarda** bateko distantzian geratu arte. **Julen Gabiria**
Hogei bat **yardako** zabalera eremu irekia zen, karela inguraturik behealdean. **Agustin Otsa**

yate iz aisiarako itsasontzia, belaz edo motorrez ibiltzen dena.

Grigorine, atondu egik **yatea** bihar goizerako. **Edorta Jimenez**
Orioko marinelek pilotatzen zuten Azor izeneko **yate** ospetsuan egin zuen sarrera. **Koldo Izagirre**
Arrantza-ontziak, **yate** txikiak. **Monika Etxebarria**
Yatea haitzen oinetan ainguratua eta sabairik gabeko autoa atarian. **Jon Muñoz**
Geratzen zitzaizkion indar apurrez **yatearen** motorra martxan jarri eta gasolina bukatu zitzaion arte utzi zuen joaten. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Beti nahi izan duzue **yate** bat Urmael Biribilean nabigatzeko. **Julen Gabiria**
Ezaren itsasoko naufragoari zer inporta zaio olatu idorren ukaldietatik salbatuko duena luxuzko **yatea** edo patera den? **Aingeru Epaltza**

yatezale (corpusean **yate zale** soilik) izond/iz yateen zalea dena.

Hainbeste gauza ikasita, trebe baino trebeagoa izateraino iritsi zen, eta **yate**-zaleen bileraren batean Carl ezagutu eta elkarren adiskide bihurtu zirenean, den-dena kontatu zion. **Karlos Zabala**

yeismo iz gaztelaniaz // idazten fonema y fonema gisa ahoskatzea.

Esan behar da, azkenik, **yeismo** izena ere ematen zaiola fenomeno honi. **Lourdes Oñederra**
Hizkera askotan hedatu da tt -> tx ahoskatzeko joera, eta **baita** yeismoa deitu ohi dena ere. **Koldo Zuazo**

yemendar (orobat **jemendar** g.er.) izlag/iz Yemengoa, Yemeni dagokiona; Yemengo herritarra.

Yemendar batek Al Kaedako kidea dela aitortu du epaiketean. **Berria - Mundua**
Salim Ahmed Hamdan **yemendarraren** abokatuak akusazioa erretiratzeko eskatu die epaileei. **Berria - Mundua**
AEBek ustez bahitu eta torturatutako hiru **yemendar** ekialdeko Europan atxiki zituztela dio Alk. **Berria - Mundua**

yen iz Japoniako diru unitatea.

Japoniako nazioarteko zuzeneko inbertsioen parte garrantzitsu bat, 1985 ondoren, **yenaren** balio-igoeraren ondorio bide da, bai dolarrari buruz, bai europar diruei buruz.

Koro Navarro

Truke-tasak dolar bateko 150 **yen** eta 1,80 marko ziren, eta, hala, ekonomia-adierazle nagusiekin adosturik zeudela erabaki zen. **Koro Navarro**

3,7 miliar **yen**en zorrarekin da ikastetxe haundi hori. **Herria**

Hoteleko gelaren faktura **yenetan** eman ahal izateko. **Joxan Elozegi**

Japoniak, adibidez, ahalegin handia egin du **yenak** euroarekiko balio apala izateko, era horretan inportazioak merkatzeko. **Berria - Ekonomia**

2001az geroztik %33 balioagabetu da [dolarra] euroarekiko eta %15 **yenarekiko**. **Berria - Ekonomia**

Apreziazioa ez zen hain handia izan **yenari** buruz (%25 "besterik ez" bost urtetan), baina %50era iritsi zen hala ere, termino errealetan, Estatu Batuetako merkataritza-kide nagusien diruei buruz. **Koro Navarro**

yeti (orobat Yeti) iz Himalaian bizi dela uste den animalia ezezaguna.

Batzuetan Patroklo, bestetan arima erratu bat, hurrengoan sorgin bat edo **yeti**a bera, pertsonaiok sor daitezkeela esan dut aurreko marrazkiaren bukaeran. **Bernardo Atxaga**

Horrela esplikatzan da elurretako gizon izugarriaren pertsonaia, **yeti** delakoa esan nahi dut. **Bernardo Atxaga**

Ez ziren haien takoi-zapata biren urratsak, baizik eta **yetiak** bidean ohi dituen haserre-pauso astunak. **Joxan Elozegi**

Askok dira **Yeti** izugarria edo Ness aintzirako munstroa ustez ikusi dutenak. **Bernardo Atxaga**

Tipo ideala **Yetiarena** bezala delako: gutxi ikusi diten eta ikusi dutenek ez diten, zer gerta ere, etxean aurkeztu. **Harkaitz Cano**

Institutu garaian esaten geninan bezala, ez dun nire Elurretako **Yetia**. **Harkaitz Cano**

"**Yeti** gizona" deitzen dute, Himalaiako abere famatu haren eite daukalako. **Herria**

yiddish (orobat jiddish g.er. eta jiddisch g.er.) 1 iz alemanaren dialektoa, hebraieraren eta beste hizkuntzen osagaiak dituena, Europako erdialde eta ekialdeko juduak erabiltzen dutena.

Yiddisha, agian; badakik: ekialdeko juduen dialektoa. **Iban Zaldúa**

Gero eta gehiago entzuten nuen **yiddisha**. **Anjel Lertxundi**

Liebkind Bendelek **yiddishez** baino ez zuen egiten. **Koro Navarro**

Kafkak Pragan ikusi zituen mundu horren ordezkariak [...] berak nekez ulertzen zuen hizkuntzaz, **jiddishez**, mintzatzen zirela. **Berria - Kultura**

Atean jo zuen, eta **yiddishez** erantzun zioten, zakar, barrutik. **Koldo Izagirre**

Mundu aberats hori [...] bizirik zegoen Bashevis Singerrek edo Joseph Rothek idatzitako zutenean, batak **jiddishez** eta besteak alemanez. **Berria - Kultura**

Aleman tankerako **yiddishez** hitz egin zidan. **Koro Navarro**

Yiddishezko idazle ezezaguna zen hura ordurako Polonian. **Koro Navarro**

2 (beste izen baten eskuinean)

Bi gerren artean, New York zen **yiddish** kulturaren munduko gune nagusietako bat. **Koro Navarro**

Pauetetik jiniakako hiru musikaririk eskainiko dute tzigano musika, bereziki Hongriako tziganoena, bai-eta **Yiddish** musika, Polonia, Errumania eta Errusiako juduena. **Herria**

Ghettoetako jende bera aurkitzen zen ostera ere Manhattan behereko Orchard Street edota Hester Street-eko denda eta arropa lantegietan, eta ugariak ziren **yiddish** antzeztokiak. **Koro Navarro**

Varsoviako **yiddish** idazleen klubeko zinikoek. **Koro Navarro**

Jiddisch hizkuntza semitarra ote? **Joxe Azurmendi**

yiddishzale izond/iz yiddisharen zalea dena.

Ezin izaten dut denbora askorik eman **yiddishzale** horiekin, lanpetuta nabil-eta beti. **Koro Navarro**

yoga 1 iz ekialdean sorturiko filosofia sistema, meditazioaren eta gorputzaren jarrera berezien teknikaren bitartez, norberaren kontzientzia izatasun unibertsalarekin bat egitea helburu duena.

Yoga, batik bat, barruko filosofia da, bakoitzarena batez ere, nolabait esatearren, eta ez ahalmen fisiko bat. **Juan Kruz Igerabide**

Adelaren sare ideologikoaren alderik erakaragarrienetako bat ekialdeko ikuspegia zen, **yoga** eta budismoa oinarri hartuta. **Juan Kruz Igerabide**

Panfletoa irakurri eta hamar minutu eskatu zizkion Josebari, eta denbora horretan lurrean eserita egon omen zen, **yogan** "loto lorea" deitzen zaion posturan. **Bernardo Atxaga**

Baziren ekialdeko filosofien iturrietatik edaten zutenak eta **yoga** praktikatzan zutenak. **Joan Mari Irigoien**

Yoga egiten hasi zenean irakasleak apur bat argaldu behar zukeela esan zion. **Lander Garro**

Gazte hauetatik inork ez du pipatzen, yogurrak hartzen dituzte, **yoga** egiten dute. **Koldo Izagirre**

Urte asko daramat goizero **yoga** eginez. **Juan Kruz Igerabide**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hemen, denbora bete eta jende berria ezagutzeko asmoz, **yoga** ikastaro batean hasi nintzen. **Fernando Morillo**

Goizeko seietan jaikitzen nintzen, dutxa hotz bizkor bat eta **yoga** ariketa gutxi batzuk egin, eta, hogeit hamar minuturen buruan, bizarra eginik eta jantzirik nengoen. **Juan Kruz Igerabide**

Beldurrari aurre egin behar zaio, esaten zuen gure **yoga**-maisua. **Karlos Linazasoro**

Aise ere hobeki jaten da hemen eta **yoga** irakasleak ere hobeak dira. **Xabier Montoia**

Gaur egun ez dago **yoga**-esperientziarik areagotzeko drogak erabiltzen dituen eskola seriorik. **Juan Kruz Igerabide**

Mario Jabiren **yoga** laguna zen, eta beti tematzen ziren unibertsoaren indarren arteko gatazka ulertu nahian. **Lander Garro**

yogazale izond/iz yogaren zalea dena.

Dianne **yogazale** amorratua eta nahiko *new age* izaerakoa zen. **Fernando Morillo**

yogourth ik **jogurt**.

yogur ik **jogurt**.

yogurt ik **jogurt**.

yonki *iz* heroinazalea.

Pentsatu nuen eredu ekonomiko europarra ez dela horrenbeste bereizten Indiakotik, eta hemen ere badirela pariak, zeinetarik askok **yonki** edo barbon bihurtuta bukatzen duten. **Bernardo Atxaga**

Eta damu naiz, mutil jatorra ematen du tindaren **yonki** honek. **Koldo Izagirre**

Normala omen den jende horrek, homosexual edo **yonki** ez direnek alegia, halako sinpatia bat sentitzen zuen gaitzarekiko. **Bernardo Atxaga**

Homosexual edo **yonki** zoriontsuak, hori ezin liteke onartu, iraingarria ere bada ia. **Bernardo Atxaga**

yorker *iz*

Angela Clare izeneko izaki aztoratzaile batek hainbeste **yorker** egin zituen ezen... **Julen Gabiria**

yucatandar *izlag/iz* Yucantangoa, Yukatani dagokiona; Yukatango herritarra.

Maien egutegi hori Maien "Inperio Zaharrak" bere filial izan zituen **Yucatandar** eta Mexikar gizarteei utzi zien ondaretzan. **Iñaki Mendiguren**

Babilonikoa, aparteko zibilizaziotzat edo Sumerikoaren luzapentzat har daitekeena, eta **Yucatandarra** eta Mexikarra, antzeratsu ahaidetuak Maien Zibilizazioarekin. **Iñaki Mendiguren**

yugoslaviar ik **jugoslaviar**.

yugozlabiar ik **jugoslaviar**.

yupi ik **yuppie**.

yuppi ik **yuppie**.

yuppie (*orobat yupi, yuppi g.er. eta yuppy g.er.*) **1 iz** exekutibo gazte eta ekintzailea, ekonomia-egoera bikainekoa.

New Yorkeko **yuppiek** kobratzen dutena baino gehiago ordainduko dizugu. **Joseba Sarrionandia**

Exekutibo agresibo, **yupi** nazkagarri, txuloputa tankerakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Madridik etorritako **yuppie** trepa batzuek "zangotrabatu" egin baitzuten. **Jon Arretxe**

Yuppie itxurak erakutsi nahian dabilen jende-modu horietako bat seguruenik. **Patxi Iturritegi**

Emakume lodiarekin dagoen gizonari begiraten diozu eta, segidan, beste mahai bateko **yuppy** itxurako trajedunari. **Lourdes Oñederra**

Mendebaldeko kalekumea, **yupi** -jasp eta zeinahi egokieratako ezkongabea gustura joaten da horrelakoetara astegunean, sagardoa atsegin duelako, sustrai bila edo eskapada klandestino hutsagatik. **Edorta Agirre**

2 (izenondo gisa)

Honek ere zaldunago egiten omen du hainbat eta hainbat jende: politikari, jaun enpresari, artista **yupi** ... **Patziku Perurena**

Txorrada **yupi** bat ateratzen zen, edo pelikula espainolen traza guztiak zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
